

# LÁZARO GANCEDO SALMANTÓN

(MENAGARAI 1900-2001)





LANA, ENGAIAMENDUA,  
ZINTZOTASUNA ETA GIZATASUNA DIRA  
LAZARO GANCEDOREN BIZITZAREN  
LAU PUNTU KARDINALAK.

---

TRABAJO, COMPROMISO,  
HONESTIDAD Y HUMANIDAD  
CONSTITUYERON LOS CUATRO PUNTOS  
CARDINALES DE LA VIDA  
DE LÁZARO GANCEDO.



1. Ikurrinaren mendeurren-ospakizunetan,  
Pagonabarra mendiaren gailurrean  
(1995eko abenduaren 12an).

Lázaro Gancedo en la cumbre del monte  
Pagonabarra (12 de diciembre de 1995),  
con ocasión del centenario de la ikurriña.



# LÁZARO GANCEDO SALMANTÓN

## LÁZARO GANCEDO SALMANTÓN

LAZARO GANCEDO SALMANTÓN BIZITZA LUZEKO GIZONA IZAN ZEN. LAZAROREN 101 URTEEK KOLOREREN BAT BALEUKATE, AIARAKO LURREN BERDEA LITZATEKE. KONTZEPTU BIRI LOTU BEHAR BALITZAIZKIEKE, FAMILIA ETA EUSKAL ABERTZALETASUNA LIRATEKE.

LÁZARO GANCEDO SALMANTÓN FUE UN HOMBRE LONGEVO. SI LOS 101 AÑOS DE LÁZARO TUVIERAN UN COLOR, ESE SERÍA EL VERDE DE LAS TIERRAS DE AYALA. SI HUBIERA QUE RELACIONARLOS CON DOS CONCEPTOS, ÉSTOS SERÍAN LA FAMILIA Y EL NACIONALISMO VASCO.



2. Umetako argazkia.  
Fotografía de infancia.

Pedro Ullacia

CASTRO &  
URDIALES

Sabino Aranaren abertzalesuna Manuel Egileoren eskuak hasi zen ikasten, Urduñako Jesuiten Ikastetxean. Han, beste jeltzale batzuen artean, Sabinok berak, Manuel Irujok eta Jose Antonio Agirre Lekubek ere ikasi zuten. On-doren, Nekazaritzako Peritu ikasketak, nekazaritzako ingeniarri teknikoa, egiten jarraitu zuen Atarrabian (Nafarroa).

Oporraldietan eta ikasketak amaitu ondoren ere, Amurrioko abertzaleekin eta Bizkaitik iristen ziren mendigoizaleekin batera lan egiten zuen.

Bere aitak, José Gancedo Elgeak hain zuzen, Gorteetako diputatu (1872) eta Arabako ahaldun nagusi orde (1877) izan zenak, "bizkaitarra" esaten zion Lazarori. Horixe zen garai hartan jeltzaleei deitzeko modu arrunta.

Urte haietan guztietan, euskal abertzalesunaren sustatzaile gogotsua izan zen Araia udalerria osatzen zuten hoigeita lau herrietan, eta sorrarezi zuen sentimendu abertzaleak eskuineko familia ezagun eta boteretsuek ezartzen zuten jauntxokeria ahultzea lortu zuen. Familia haiek Araban edo Madrilen bizi ziren, baina Araban ematen zuten boto, Foruen babespean. Sentimendu abertzale hura bortizki erreprimitu eta lurperatu zuen frankismoak berrogei urtez, bereziki euren onerako falangismoarekin bat egin zuten eskualdeko edo kanpotik iritsitako pertsonen aldetik.

Lazaro Gancedoren jarduera politikoari buruz dokumentatuta dauden lehen albisteak 1931koak dira. Urte hartan, apirilaren 5ean, udal hauteskundeetarako deialdiaren esparruan, Lazaro Aiarako Udaleko zinegotzi hautatua eta azkenean izendatua izan zen, 9 pertsona gehiagorekin batera, indarrean zegoen hauteskunde legeko 29. artikuluaren bidez. Alegia, zuzean hautatu zituzten, hauteskunde lehiarik gabe, jokoan



3. Lázaro, bere etxeko lorategian.  
Lázaro en el jardín de su casa.

Se inició en el nacionalismo de Sabino Arana de la mano de Manuel Egileor en el Colegio de Jesuitas de Ordizia donde también estudiaron, entre otros jeltzales, el propio Sabino, Manuel Irujo y José Antonio Agirre Lekube. Posteriormente, continuó sus estudios de Peritaje Agrícola, ingeniero técnico agrícola, en Villaba-Atarrabia (Navarra).

En sus períodos vacacionales y también después de finalizar la carrera, colaboraba con los nacionalistas de Amurrio y con los mendigoizales que venían de Bizkaia.



Su padre José, que fue diputado en Cortes en 1872 y teniente de diputado general de Álava en 1877, le llamaba "el bizkaitarra". Esa era la forma coloquial de denominar a los nacionalistas vascos.

Durante todos aquellos años, fue un entusiasta promotor del nacionalismo vasco en los veinticuatro pueblos que constituyan el municipio de Ayala, consiguiendo crear un sentimiento nacionalista que logró contrarrestar

4. José Gancedo Elgea eta Francisca Salmantón Gutiérrez, Lázaroren gurasoak.  
José Gancedo Elgea y Francisca Salmantón Gutiérrez, padres de Lázaro.

zeuden 10 zinegotzi karguetarako haien batzuk ez zirelako aurkeztu. Lazarorekin batera, hautagaitzan, gutxienez, Manuel Irabien Ortega eta Justo Lejarza Camino jeltzaleek parte hartu zuten. Irabien alkate izan zen aurreko aldean. Apirilaren 17an, Errepublika aldarrakatu eta hiru egunetara, Aiarako Udaleko alkate-udalburu hautatu zuten, aho batez.

Udaletik Gobernu Zibilera igorritako komunikazio batetan egindako ohar baten arabera, haien guztiak monarkikoak zen. Hala ere, kalifikatzaile hori ez dator bat errealtatearekin. Zuzenagoa da zinegotzi guztiak aukera politiko bitako partaideak zirela esatea, zeinek, norberaren nahiak alde batera utzita, udal hautagaitza administratiboa hitzartu baitzuten. Euskal geografian haren antzeko kasu gehiago dago.

Azalpena Jose Ramon Madariagak eman zuen, zeinek, zinegotzi nagusiena izanda, apirilaren 17 hartan udalbatza berria eratzeko saioan buru jardun baitzuen. Adierazi zuenez, eta hala jaso zen aktan, pozik zegoen "azken haueskundeetan parte hartzeko prest zeuden aurkako alderdi bien artean akordio batera iritsi ahal izan" zelako. Hala, bakea itunduta, pentsa zitekeen udalbatzak hartu beharreko erabakiak harmoniarik handienaren barruan jorratu eta ebatziko zirela, udal kontu guztiei aho bateko bultzada emanez eta herritarrentzako kudeaketa eraginkorra eta onuragarria eginez. Inon esan ez bazeen ere, argi dago Madariaga katolikoak aipatu alderdi biak euskal abertzaleak eta tradisionalistak direla.

Garai berean, gobernuaren aginduz, Aiarako Kuadri-Irabiako udalerri jakin bateko alkatea zen aldetik probintziako kudeaketa batzordeko karguagatikoa kide izendatu zuten Gancedo. Batzordea hura 1931ko apirilaren 24an eratu zen, bazihoa aldundia ordezteko, eta Teodoro Olarte izan zuen buru. Batzordean Lazaro egotea salbuespena izan zen; izan ere EAJK kudeaketa batzorde errepublikanoetan parte ez hartzea erabakia zuen. Gancedok 1933ko urtarrilaren 26a baino lehenago eman zuen dimisioa batzorde horretan, indar errepublikanoen artean egon zen krisiarekin eta, horren ondorioz, batzordearen berrantolaketarekin batera.

1932ko Aberri Egunaren bezperetan, espetxeratu egin zuten, armak legez kanpo edukitzea leporatuta. Geroago frogatu zenez, haren aitaren bildumako aurrekargako dozena erdi arma zahar ziren. Atxilotetaren erruz, ezin izan zen



5. Lazaro Gancedoren etxea, Menagarai.  
Casa natal del Lázaro Gancedo en Menagarai.

el caciquismo que imponían conocidas y poderosas familias de la derecha, residentes en Álava o en Madrid, pero que votaban en Ayala, acogiéndose a los Fueros. Este sentimiento nacionalista fue brutalmente reprimido y soterrado durante cuarenta años por el franquismo, en especial por aquellas personas de la zona o llegadas de fuera que abrazaron el falangismo en provecho propio.

Las primeras noticias documentales que se poseen respecto a la actividad política de Lázaro Gancedo corresponden a 1931. Ese año, el 5 de abril, en el marco de la convocatoria de elecciones municipales, Lázaro fue proclamado y definitivamente designado concejal del Ayuntamiento de Ayala en compañía de otras 9 personas a través del artículo 29 de la Ley electoral vigente. Esto es, fueron elegidos directamente, sin lucha electoral, dado que no se presentaron más que ellos para las 10 concejalías en juego. Junto a Lázaro, participaron en la candidatura, al menos, los jeltzales Manuel Irabien Ortega y Justo Lejarza Camino. Irabien había sido alcalde en el periodo anterior. Con fecha 17 de abril, tres días después de la proclamación de la República, Lázaro Gancedo fue elegido, por aclamación, alcalde-presidente del Ayuntamiento de Ayala.

Según un apunte realizado en una comunicación enviada desde el Ayuntamiento al Gobierno Civil, la filiación política de todos ellos era monárquica. No obstante, dicho calificativo no se ajusta a la realidad. Es más correcto encasillar al conjunto de los concejales como elementos pertenecien-

joan Bilbon ospatutako Aberri Egunera. Atxiloketak beste xede bat zeukan: errudun jotzea eta Fernando Poo koloniala-Espainiar Ginea ere ziotsoten- deserritza, Eusko Alderdi Jeltzalearen alde lan egitea eta Aiarako haraneko abertzaleengen zeukan eragina galarazteko. Haren aukako epaietan, Francisco Javier Landaburu haren lagunak defendatu zuten. Landaburu diputatu hautatu zuten urtebete geroago, Gorteetarako, Arabatik, EAJ ordezkatuz, eta, geroago, erbesteko Euzkadiko Gobernuko lehendakariorde izendatu zuten. Gasteizeko abokatuak egindako defentsa onari esker errugabe jo zuten Lazaro. 17 egun geroago askatu zuten.

Urte biko ibilbidearen ondoren, Aiarako udalbatza, 29. artikuluaren bidez izendatutako zinegotziek osorik edo partzialki osatutako beste udalak bezala, osorik kargugabetua izan zen, indarreko legediak xedatutakoa betez. Haren tokia, behin-behinean, 1933ko urtarrilaren 29az geroztik, udal kudeaketa batzorde batek hartu zuen, Gobernu Zibilak izendatutako hiru pertsonak osatuta. Batzordeburu Benito Fernández Larrauri izendatu zuten, garai hartan Arespalditzako maisua eta, beraz, Estatuko funtzionarioa.

Handik 3 hilabetera, ozta-ozta, legezko hauteskunde-prozesua deitu ondoren, Aiara udalbatza berria osatuko zuten hamar lagunak hautatzeko prestatu zen. Hauteskun-

*6. 1933ko apirilean Aiaran izandako udal hauteskundeen emaitzak.  
Resultados electorales de las elecciones municipales celebradas en Ayala en abril de 1933.*

Boleta del resultado de los Elecciones Municipales celebradas en Ayala en abril de 1933.			
Enero 14 - NACIONALISTAS.			
	Votación 14. Enero 33	Total	
1. Angel Villanueva Her. (Unida Católica)	188	294	482
2. José de Belaustegui	18	181	403
3. Estebanide Gómez Arribalzaga	18	179	400
4. José de la Mierrieta	18	182	384
5. D. Juan de Zubeldia Ortega	18	188	386
6. Puerto Lajares, Cuadros	18	188	373
7. Manuel Burgos Landa	18	140	308
8. José de Urquiza Andrade	18	155	313
9. Peñalver Galván, Aguirre (Bachillerato)	47	51	52
10. Peñalver Galván, Aguirre (Bachillerato)	18	42	52
11. Vicente Gómez Urdaneta	18	19	37
12. Eusebio Larriondo, Urkizua	18	28	49
13. Ignacio Hernández Salazarberria	18	28	46
Enero 20 - REPUBLICANOS.			
1. López Gómez Salazarberria, (Partidario independiente)	219	206	425
2. Celestino Urreaga Vizcaína	18	18	36
3. Juan Belaustegui Arrotxea	18	18	36
4. Juan Oñate Sáenzperre (Unida Católica)	18	18	36
5. Vicente Urquiza Urkizua	18	18	36
6. Eusebio Larriondo Urkizua (Repoblacionista)	18	18	36
7. Joaquín Urtaza Izaqui	18	18	36

tes a dos opciones políticas que, aparcando sus apetencias, concertaron una candidatura de carácter municipalista de tinte administrativo. Existen más casos como el anterior en la geografía vasca.

La explicación la dio José Ramón Madariaga que, en calidad de concejal de más edad, presidió la sesión constitutiva de la nueva corporación aquel 17 de abril. Según manifestó y así consta en acta, se congratulaba de "haberse podido llegar a una inteligencia entre los dos bandos opuestos que se aprestaban a intervenir en la última contienda electoral". Así, con la paz concertada, era previsible que los asuntos que se sometieran a la resolución del consistorio habrían de tratarse y resolverse dentro de la mayor armonía, dando impulso unánime a todos los asuntos municipales y realizando una gestión eficaz y beneficiosa para el vecindario. Aun cuando en ningún lugar se dice, es evidente que los dos bandos a los que hace referencia el católico Madariaga, se tratan de los nacionalistas vascos y de los tradicionalistas.

Coincidendo en el tiempo, Gancedo, en su condición de alcalde de uno de los municipios que conformaban la Cuadrilla de Ayala, fue nombrado, por disposición gubernativa, vocal nato de la Comisión Gestora provincial. Esta Comisión, que se constituyó el 24 de abril de 1931 en sustitución de la Diputación saliente, estuvo presidida por Teodoro Olarte. La presencia de Lázaro en dicha Comisión fue excepcional, ya que EAJ-PNV había acordado no participar en las Comisiones gestoras republicanas. Gancedo dimitió de dicha Comisión con anterioridad al 26 de enero de 1933, coincidiendo con la crisis que se vivió entre las fuerzas republicanas y, consiguientemente, con remodelación de dicha Comisión.


En vísperas del Aberri Eguna de 1932 fue encarcelado bajo la acusación de tenencia ilícita de armas. Luego se demostró que se trataba de media docena de armas antiguas de avancarga que coleccionaba su padre. La detención le impidió acudir al Aberri Eguna que se celebraba en Bilbao. El arresto tenía otra finalidad: declararle culpable y desterrarle a la colonia Fernando Poo, también conocida como Guinea Española, para impedir su trabajo en favor del Partido Nacionalista Vasco y su influencia sobre los nacionalistas del valle de Ayala. En el proceso judicial seguido contra su

deak apirilaren 23an burutu ziren. Hiru hautagaitza eta guztira 20 hautagai aurkeztu ziren: abertzaleak, Unión Católica, zein Arabar Anaidiari lotutuzt zotzen zen, eta errepiblikarrak. Jeltzaleek zazpi hautagai aurkeztu zituzten Aiara osatzen zuten barruti bietan (Arespaldiza eta Retes). Honaakoak: Manuel Irabien Ortega, Justo Lejarza Camino, Manuel Murga Landa, José M<sup>a</sup> Urkiza Amezaga, Lázaro Gancedo Salmantón, Celestino Urruela Urruela eta Bernabé Respaldiza Arratia. Katolikoek eta errepiblikarrek, hurrenez hurren, 7 eta 6 hautagai aurkeztu zituzten.

Herritarrek, erdi bana, jeltzaleengan (Irabien, Lejarza, Gancedo, Urruela eta Respaldiza) eta katolikoengan (Ángel Villanueva Hoz, José María Madariaga Arana, Antonino Ibarrola Arzá, José María Arana Elorrieta eta Juan Udaeta San-

*7. Aiarako Udal batzak 1934ko abuztuaren 20an egindako aparteko batzarraren agiriaren pusketa bat.*

*Extracto del acta de la sesión extraordinaria celebrada el 20 de agosto de 1934 por el Ayuntamiento de Ayala.*



persona ejerció la defensa su amigo Francisco Javier Lan-daburu, quien un año más tarde fue elegido diputado a Cortes por Álava en representación de EAJ-PNV, y, con posterioridad, fue proclamado Vicelehendakari del Gobierno de Euzkadi en el exilio. La acertada defensa realizada por el abogado gasteiztarra supuso que Lázaro fuera declarado inocente. Fue puesto en libertad 17 días más tarde.

Tras dos años de andadura, la corporación municipal de Ayala, al igual que las de otros municipios constituidos total o parcialmente por concejales designados a través del artículo 29, fue cesada al completo en cumplimiento de lo dispuesto por la legislación vigente. Su lugar fue ocupado transitoriamente, a partir del 29 de enero de 1933, por una comisión gestora municipal, formada por 3 personas, designada por el Gobierno Civil. La presidencia de la misma le fue encomendada a Benito Fernández Larrauri, a la sazón maestro de Arespaldiza y, por ello, funcionario del Estado.

A escasos 3 meses, una vez convocado el proceso electoral pertinente, Ayala se dispuso a elegir a las 10 personas que habían de conformar la nueva corporación municipal. Las elecciones se llevaron a cabo el 23 de abril. A la misma concurrieron 3 candidaturas con un total de 20 candidatos: los nacionalistas, la Unión Católica, a la que se vincula con la Hermandad Alavesa, y los republicanos. Los jeltzales presentaron 7 candidatos en los dos distritos que conformaban Ayala (Arespaldiza y Retes). A saber: Manuel Irabien Ortega, Justo Lejarza Camino, Manuel Murga Landa, José M<sup>a</sup> Urkiza Amezaga, Lázaro Gancedo Salmantón, Celestino Urruela Urruela y Bernabé Respaldiza Arratia. Los católicos y los republicanos presentaron 7 y 6 candidatos respectivamente.

El vecindario confió, en partes iguales, en los jeltzales (Irabien, Lejarza, Gancedo, Urruela y Respaldiza) y en los católicos (Ángel Villanueva Hoz, José María Madariaga Arana, Antonino Ibarrola Arzá, José María Arana Elorrieta y Juan Udaeta Sanchoyerto). Una vez que, con fecha 10 de mayo de 1933, tomaron posesión de las concejalías, la designación del alcalde hubo de dilucidarse, tras dos votaciones entre Justo Lejarza y el católico José M<sup>a</sup> Madariaga, mediante sorteo. Éste favoreció al jeltzale. Por esta vez, Lázaro Gancedo se centró exclusivamente en aquellas áreas que, como concejal, le fueron asignadas.



8. Menagaraiako Batzokiaren inaugurazioa (1934ko uztailaren 29)  
Inauguración del Batzoki de Menegarai (29 julio de 1934).

choyerto) jarri zuten euren konfiantza. 1933ko maiatzaren 10ean zinegotzi-karguak hartutakoan, Justo Lejarzaren eta Jose M<sup>a</sup> Madariaga katolikoen arteko bozketa biren ondoren, zozketaz erabaki behar izan zen. Jeltzaleak irabazi zuen. Oraingoan, Lazaro Gancedok zinegotzi gisa esleitu zitzaitz-kion arloei baino ez zien heldu.

1934ko uztailaren 29an Menagaraiako batzokia inauguruatu zen hotsandiz, harena zen lokal batean, alderdiari horretarako utzia. Ekitaldira Euzkadiko Uri-Buru-Batzar asko, EAJko goi-karguak eta kide asko bertaratu ziren.

El 29 de julio de 1934 se inauguró solemnemente el Batzoki de Menagarai, en un local de su propiedad, cedido al Partido para dicho cometido. Al acto asistieron numerosas Juntas Municipales de Euzkadi, altos cargos de EAJ-PNV y numerosos afiliados.

Coincidiendo en el tiempo, los concejales jeltzales de la corporación municipal de Ayala, entre los que se encontraba Lázaro, se sumaron a un amplio movimiento municipalista nacido en defensa del Concierto Económico y de los Derechos de Euzkadi, puestos en entredicho por el gobierno


Garai berean, Aiarako udalbatzako zinegotzi jeltzaleek, eta haien artean Lazarok, kontzertu ekonomikoaren eta Euzkadiaren eskubideen alde sortutako udal mugimendu zabalarekin bat egin zuten, gobernu erradikal-cedistak haien guztiak zalantzian jarri baitzituen. Gobernuak berehalako erantzun zuen: abiarazi nahi zen herri ekimen oro debekatu zuen.

Aiarako esparruan ekimen haien abiarazteari dagokionez, azpimarratu behar da, ezarritako legezko epeak bete gabe, 1934ko abuztuaren 18an osoko bilkura berezia deitu zela premiaz, kontzertu ekonomikoaren aldeko hautagaitza bat hautatzeko. Kuadrillako zenbait udalerritako lau zinegotzi osatuko zuten hora. Bakarka bildu ondoren, zinegotzi katolikoak ez baitziren agertu, zinegotzi jeltzaleek ez zuten euren asmoan aurrera egin, beharbada, osoko bilkuren aretoan asaltoko guardiako teniente bat zegoelako, eta Benito Landa idazkariak legeari buruzko oharpenak egin zituelako: hartu nahi zuten hitzarmenaren legez kontrakotasuna eta deialdirako akatsa. Procedura-akats guztiak konpondutakoan, Aiarako udalbatza beste osoko bilkura berezi batera deitu zuten egun bi geroago, abuztuaren 20an. Orduan ere Unión Católico zinegotziak ez ziren bertaratu. Izugarriko ezustekoan hartu zuten zeuden lau zinegotzi jeltzaleek ikusi zutenean Justo Lejarza alkatea, arrazoirik eman gabe, ez zegoela. Arazoen eta idazkariak legez kontrakotasunari buruz egindako oharpen errepikatuen gainetik, Gancedok bere herriarekin, bere jendearekin eta ideología jeltzalearekin engaiatutako pertsona gisa zituen dohainak erakutsi zuen. "Herriak bere botoen bidez gauden postuan jarri gintuenean, udalerriaren interes guztien defentsa utzi zuen gure eskuetan; guk, hura onartzean, betebehar saihestezin hori hartu egin genuen geure. Beraz, aukera daukazue gaur hari erakusteko bere nahiea erantzun nahi diezuela, beste udalekin izendatutako batzordeekin batera udalerri, herri osoaren interesen alde egin behar duen hautagaitza bozkatzu egingo duzue. Bestalde, eta erraz gogoratuko duzue, oso berria delako, orain hainbeste kezkatzen gaituen udal honen defizitaren arrazoi bakarra gobernuak gure aurretik jardun zuen eta neurri batean ordezta gintuen kudeaketa batzorde zorigaitzoko hari emandako baimena da, baimen hura baliatuz, jardun zuen lau hiletan gure esfortzuz atxiki eta handitza lortu genuen aurrezki errespetagarri guztiak xahutu baitzituen. Ez da nire asmoa gobernari jaunaren aginduak ez betetzea, baina gure herriaren interesak mehatxupear daudela ikusita, uste dut Felix Zarandona Laudioko zinegotzi jaunaren, Vidal Sautu Zuiako zinegotzi jaunaren, Juan Zabalgoitia Artziniegako zinegotzi jaunaren eta Manuel Irabien Aiarako zinegotzi jaunaren hautagaitza bozkatu beharrean nago".

radical-cedista. La reacción gubernamental fue inmediata: prohibió cuantas iniciativas populares se pretendieron poner en marcha.

Respecto a la puesta en marcha de dichas iniciativas en el ámbito ayalés cabe destacar la convocatoria urgente, sin respetar los plazos legales establecidos, de un pleno extraordinario el 18 de agosto de 1934, donde elegir una candidatura defensora del Concierto Económico formada por cuatro concejales pertenecientes a distintos municipios de la Cuadrilla. Tras reunirse en solitario, dado que los ediles católicos no se personaron, los concejales jeltzales no avanzaron en su propósito, tal vez debido a la presencia de un teniente de la Guardia de Asalto en el salón de plenos y a las advertencias legales del secretario Benito Landa: ilegalidad del acuerdo que pretendían adoptar y defecto de la convocatoria. Una vez subsanados todos los defectos de procedimiento, la corporación de Ayala fue convocada a una nueva sesión extraordinaria dos días mas tarde, 20 de agosto. Tampoco en la presente ocasión acudieron los concejales de la denominada Unión Católica. La sorpresa

9. Batzokiaren inaugurazio-egitaraua, Euzkadi egunkaria, 1934ko uztailaren 25, 6. orr.  
Programa de la inauguración del Batzoki, Diario Euzkadi, 25 de julio de 1934, p. 6.



PÁGINA SEIS

## El Batzoki de Menagarai

**Con extraordinaria brillantez se celebraron los actos inaugurales.-Solemne misa.-Alarde de danzas vascas.-Banquete oficial.-Interesantes discursos y animadísima romería vasca.-Otros detalles**

El grupo de la magna inauguración a más suave, eleva al Batzoki en la iglesia parroquial vecinal heráldica, Romería  
en la misma plaza número de Andoain y su nombre, ante. — Foto T. Gómez

**EN MENAGARAI**

El acontecer político de Menagarai tiene para todo persona su color de gran romería. En el pueblo, Basilea y Ezkaba, se han reunido los concejales y representantes de otras fraternas que tienen en Eibar y Guernica. Podíamos ver en la Aldeaneta de Andoain y en sus pueblos vecinos de Andoain — que es una de las costumbres de Carlos III.

En Menagarai se han celebrado numerosas reuniones de dirigentes de Andoain, Pasaia, Bermeo, Sestao, Elorrio, etc., con otras citas previsiones que ya quedan en su memoria. Los señores don José María Arregi, don Vicente Txapela, don Juan Ibarretxe, don José Gómez, etc., etc., son de la gente que ha querido contribuir a la felicidad de Andoain. Y así lo ha hecho.

Los señores de Menagarai han invitado a Basilea y Ezkaba a que no se apaguen las fiestas de Andoain, y que se celebren todo lo que sea posible para la muestra de Andoain.

**LIDS MACHAELISTAS**

**EN MENAGARAI**

Tres señores dirigentes de Lids apoyan la representación que han hecho los señores de Andoain, y que se han reunido en la villa de Andoain para las fiestas que han hecho creer y provocado contra las autoridades nacionales. Los señores dirigentes que apoyan a Andoain son: don Joaquín Argiñena de Ezkaba. Y así, un dirigente socialista, que apoya a Andoain, dice: «Vamos a ver si el socialismo nos da la victoria». Con un sentido sentido social, que no es socialista, recordando que apoya a Andoain.

**EL BANQUETE OFICIAL**

Para un banquete oficial se han reunido numerosos señores de Andoain, 200 asistentes que cubren una parte de los intereses de Andoain. Quedan, sin embargo, los señores de Andoain que han quedado en el pueblo, la comisión que organiza las fiestas, los señores dirigentes que apoyan a Andoain, etc. El presidente del consejo de Caja de Pensiones don Francisco J. de Lázaro, el señor Gómez, el presidente de la Comisión de Defensa del Concierto Económico don José Gómez, etc., etc., señores personalidades. No faltaron, además, señores de Ezkaba, y otros señores personalidades. Se realizó, hasta voluntades. El banquete fue un éxito.

— ¿Qué pasa en Andoain? — dice un dirigente socialista. — La gente que ha hecho la fiesta de Menagarai, que es de Andoain, tiene que hacerlo. Una cosa de Andoain, cuando se celebra una feria, se celebra en Andoain, y no en Ezkaba. Los señores de Andoain tienen que hacerlo.

**LA REPRESENTACIÓN OFICIAL**

fue mayúscula cuando los cuatro concejales jeltzales presentes comprobaron la ausencia, sin justificar, del alcalde Justo Lejarza. Pese a la adversidad y a las reiteradas advertencias de ilegalidad realizadas por el secretario, Gancedo mostró sus dotes de persona comprometida con su pueblo, con sus gentes y con la ideología jeltzale. “Cuando el pueblo nos colocó con sus votos en el puesto que ocupamos, nos confió la defensa de los intereses todos del Municipio; nosotros, al aceptarlo, trajimos ese deber ineludible. Hoy tenéis, pues, ocasión de demostrarle que queréis responder a sus deseos, lo haréis votando la candidatura que en unión de las demás comisiones nombradas con los otros Ayuntamientos han de defender los intereses de todo el Municipio del País. Por otra parte y fácilmente lo recordaréis puesto que es bien reciente el déficit sufrido por este Ayuntamiento y que tanto nos preocupa ahora, se debe única y exclusivamente a la autorización gubernativa dada a aquella funesta Gestora que nos precedió y en parte nos sustituyó, que valiéndose de dicha autorización derrochó en sus cuatro meses de existencia, todos los respetables ahorros que con nuestro esfuerzo logramos sostener y aumentar. No está en mi ánimo desobedecer las órdenes del Sr. Gobernador, pero ante la amenaza de los intereses de nuestro pueblo, me creo en la obligación de votar la candidatura de los señores don Félix Zarandona, concejal de Llodio, don Vidal Sautu, concejal de Zuya, Murguía, don Juan Zabalgoitia, concejal de Arceniega, y don Manuel Irabien, concejal de Ayala”.

Tras proceder a la votación, los cuatro concejales presentes votaron unánimemente a las personas arriba indicadas, todas ellas pertenecientes a la Comisión de Defensa del Concierto Económico y de los Derechos del País. Seguidamente, Lázaro manifestó haber votado por entender que “habiendo sido el Concierto Económico repetidas veces vulnerado por el Poder Central y encontrándose en las actuales circunstancias amenazado, es un deber de todo buen vasco amante de las tradiciones de este país el defenderlo y no encontrando suficientemente defendido dicho Concierto Económico he creído y sigo creyendo que es preciso el nombramiento de esa Comisión intermunicipal para defendelo”.

10. Batzokiren inaugurazio-kronika, Euzkadi egunkaria, 1934ko abuztuaren 1, 6. orr. Crónica de la inauguración del Batzoki, Diario Euzkadi, 1 de agosto de 1934, p. 6.

Bozkatu ondoren, zeuden lau zinegotziek aho batez bozkatu zituzten arestian aipatu pertsonak, haiek denak Herriaren Kontzertu Ekonomikoaren eta Eskubideen Defentsarako Batzordeko kideak. Ondoren, Lazarok honela azaldu zuen bozkatzeko arrazoia: “botere zentralak kontzertu ekonomikoa hainbestetan urratu ondoren eta egungo egoeran mehatxupean egonda, herri honetako tradizioak maite dituen euskaldun on ororen betebeharra da hura defendatzea eta, kontzertu ekonomiko hori behar bezain defendatuta ez dagoelakoan, uste izan dut, eta oraindik uste dut, udal arteko batzorde hori izendatu behar dela hura defendatzeko”.

Gobernuaren erantzuna berehala iritsi zen. Euzkadiko beste toki batzuetan bezala, Amurrioko instrukcio-epaileak 1934ko abuztuaren 27an, Leandro Celestino Urruela jeltzalea bigarren alkateorde kargutik kentzea erabaki zuen. Kar-gugabetze horri lotuta zinegotzi kargua ere kendu zitzaiion. Horren ondorioz, udalbatzan kargu bat hutsik geratu zen. Zenbait egun geroago, irailaren 7an, Lazaro Gancedok eta Manuel Irabienek zinegotzi karguari uko egin zioten, era ezeztazinean. Geroago gauza bera egin zuen Bernabe Respaldizak. Haiek denak Urruela zinegotziaren sumario berberagatik prozesatu zituzten eta, halaber, 1935eko urtarilaren 31n gaitasungabetzeko zigorra ezarri zitzaien. Hutsik geratutako lau karduak berehala bete zituzten bitarteko lau zinegotzik, gobernuaren erabakiz.

*11. Iparraldean, Lázaro Gancedo, zutunik, eta Luciano Aspizua, jesarrita, txondorra zaintzen.*

*Iparralde: Lázaro Gancedo, de pie, y Luciano Aspizua, sentado, cuidando la carbonera.*



La reacción del gobierno no se hizo esperar. Al igual que en otros lugares del País, el juez de instrucción de Amurrio acordó, con fecha 27 de agosto de 1934, la suspensión del jeltzale Leandro Celestino Urruela en el cargo de segundo teniente-alcalde. Dicha suspensión llevó anexa la correspondiente a la concejalía. Consiguientemente se produjo una vacante en el seno de la corporación. Días más tarde, 7 de septiembre, Lázaro Gancedo y Manuel Irabien renunciaron con carácter irrevocable al cargo de concejales. Más tarde lo hizo Bernabé Respaldiza. Todos ellos, procesados por igual sumario que el concejal Urruela, fueron condenados asimismo a pena de inhabilitación con fecha 31 de enero de 1935. Las cuatro vacantes fueron cubiertas inmediatamente por disposición gubernativa, por 4 concejales interinos.

Tras el triunfo electoral de Frente Popular en las Elecciones Generales celebradas en febrero de 1936 y posterior aprobación y entrada en vigor del Decreto-Ley de Amnistía, de 21 de febrero, los cuatro jeltzales se reintegraron a su puesto de concejal con fecha 23 de febrero.

Un mes más tarde, ante la convocatoria a elecciones municipales previstas para los días 12 de abril, en primera vuelta, y 26 de abril, en segunda vuelta, 116 vecinos y vecinas de Ayala, vivamente interesados en presentar a Lázaro Gancedo, como candidato a alcalde, solicitaron y avalaron con su firma la antevotación prevista en la legislación. La legislación posibilitaba la elección directa del alcalde. Aun cuando la antevotación se llevó a cabo, sirvió de poco. El proceso electoral fue suspendido por orden gubernativa en el conjunto de la geografía estatal, debido a los problemas existentes en el seno del Frente Popular.

Tras el alzamiento de los sublevados contra la República, el gobernador civil de Bizkaia, autoridad a la que quedó adscrita Ayala, decretó el cese de los cinco concejales católicos, del alcalde Justo Lejarza y del secretario Benito Landa. Cabe decir, que con posterioridad el secretario fue detenido y trasladado a la prisión habilitada en el colegio

Frente Popularrek 1936ko otsaileko hauteskunde orokorrak irabazi ondoren, otsailaren 21eko Amnistia Lege Dekretua indarrean sartutakoan, lau jeltzaleak euren zinegotzi kargura itzuli ziren otsailaren 23an.

Hilabete geroago, lehen itzulian apirilaren 12rako eta bigarren itzulian apirilaren 26rako aurreikusitako udal hauteskundeetarako deialdiaren aurrean, Aiarako 116 herritarrek, Lazaro Gancedo alkaterako hautagai aurkezteko interes bizi, euren sinadura jarri zuten legedian aurreikusitako aurrebozketa eskatu eta babestu zuten. Legediak alkatearen zuzeneko hautaketa ahalbidetzen zuen. Aurrebozketa burutu bazeen ere, ez zuen balio handirik izan. Hauteskunde-prozesua bertan behera utzi zen gobernuaren aginduz Estatu osoan, Frente Popularren baitan zeuden arazoak zirela-eta.

Matxinatuek Errepublikaren aurka altxatu ondoren, Bizkaiko gobernadore zibilak bost zinegotzi katolikoak, Justo Lejarza alkatea eta Benito Landa idazkaria kargugabetzea dekretatu zuen, Aiara haren agintean geratua baitzen. Esan behar da, gerora idazkaria atxilotu eta Bilboko Aingeru Zaindariak ikastetxean atondutako presondegira eraman zutela, 1937ko urtarrilaren 4an, eta presondegiari eraso zioten miliziek exekutatu zutela. Hutsik geratu ziren zinegotzi-karguak herriko Errepublikaren Defentsa Nazionalerako Batzordeak proposatutako pertsonak hartu zituzten. Pertsona haien, zinegotzi jeltzaleekin adostuta, 1936ko abuztuaren 25ean udalbatza berria eratu zuten Aiaran, eta Lazaro Gancedo jarri zuten buru, aho batez hautatuta. Lazarok 1937ko maiatzeko 11 arte iraun zuen alkatetza buru.

Lazaro Gancedoren ontasunaren adibide bat da gerra zibilean mehatxu bikotza izan zuela, eta hori sakonenean onak diren pertsonei gertatzen zaie: faxistek ideología abertzaleagatik jazarri zuten eta CNTk “fusilagaien” zerrunden eduki zuen, alde frankistako pertsonak ezkutatzea eta hain bezia salbatzea leporatuta.

Bera eta haren familia Iparraldeko erbestean lau urtez egon ondoren, agintari frankistek gerraren ondoren ezarritako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko urtarrilaren 9an Burgosen emandako epaian, idatziz utzi zuen frogatuta zeukala Lazaro Gancedok eskuineko



12. Josefa, Lázaro eta María Gancedo Salmantón neba-arrebak.  
Los hermanos Josefa, Lázaro y María Gancedo Salmantón.

Ángeles Custodios Bilbao, donde fue, con fecha 4 de enero de 1937, fue ejecutado por milicianos que asaltaron la prisión. Las concejalías vacantes fueron ocupadas por otras tantas personas propuestas por el Comité de Defensa Nacional de la República de la localidad. Aquellos, de común acuerdo con los concejales jeltzales, constituyeron, con fecha 25 de agosto de 1936, una nueva corporación local en Ayala, y situaron al frente de ella a Lázaro Gancedo, elegido por aclamación. Lázaro permaneció al frente de la alcaldía hasta el 11 de mayo de 1937.

Un ejemplo de la bondad del carácter de Lázaro Gancedo es que estuvo doblemente amenazado en la guerra civil y esto solo ocurre con las personas profundamente buenas: los fascistas le persiguieron por su ideología nacionalista y la CNT le tuvo en su lista de “fusilables” acusado de esconder y salvar la vida a gentes del bando franquista.



13. Iparraldean, Lázaro Gancedo, txondor puntan, eta Luciano Aspizua, egur-eskukadekin.

Iparralde: Lázaro Gancedo, en lo alto de la carbonera, y Luciano Aspizua, con un manojo de leña.

